



BARREN
TOKIKOM

12.
Errechina triste bat
escuan eman ta
niri argui eguiten
gora craman ta,
argatic paratzen der
onembeste: canta
berriz orrelacoric
ez dedin guerta,
ongui ezaguturic
dala nere falta.

13.
Aurrena Aita-alabac
azquenean Ama
nere escutic zuten
eriotza bana,
orain acordatzen naiz
gaizqui eguin dedana
eracutsi zadazu
arren nere Jauna,
nola pagatuco dan
onelaco lana

14.
Amalau eriotza
nere bacarrarequi
nola paga litezqu
albaneza jaquin
conformatua na
gure Jaunareo
pagatcen ote
pusca bana
beste erre
ez dago

Ogueita bost urte da
nere edádea
nagusi on batentzat
ah cer mirabea,
ez naiz pecatuaren
mancharic gabea
beti oquerreraco
nere banidadea,
penetan pasateeco
eternidadea.

15.
Ea bada munduac
desamparatuac
ongui adi itzazute
nere trabajuac,
eguiaren bidean
daude probatuac
onetara baño len
átera contuac,
munduan onena ere
ezguera Santuac.

16.
Santo C
confesa
cer obra
nie Cata
Lérida
urrengo
bost lag
beren f
guztiac
gabaren

17.
Ah cer errematea
munduco gustoac
ni beelaco asco
adira nastuac,
embait barcatcen digu
ungoico justuac
ña ez dira egongo
hocoan aztuac,
guero pagatcen dute
anima gassoac.

18.
Pecatu
ez nu
gaiztaqueriac.

'Hamalau heriotzena', argitze bidean

Modesto Arrieta, 'Hamalau heriotzena'
bertso sorta ikertzen diharduen bertsozalea



LAN-DEIALDIA

GAZTELEKURAKO PREMIA BEREZITAKO HEZITZAILEA BEHAR DA

ESKAITZEN DA:

- Egun erdiko lanaldia.
- Urtebeterako lan kontratua.

ESKATZEN DA:

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Gizarte Zientzietako edo antzeko erdi edo goi-mailako titulazioa izatea.
- 3. hizkuntza eskakizuna, EGA edo titulu baliokideren bat
- Hezkuntza bereziko ikasketak izatea

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan eskarmentua izatea.
- Psikopedagogia, Pedagogia edo gizarte zientzietako antzeko goi mailako unibertsitate titulazioa izatea.
- Espezializazio ikastaroak izatea.
- Nerabezaroa eta nerabeen errealitatea ezagutzea.
- Elgoibarkoa izatea.



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Erakundeak

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
uztailak 10, ostirala, 12:00ak arte

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus
Ubitarte 4, behea. 20870 Elgoibar



ATXUTXIAMAIKA

LAN-DEIALDIA

BARRENERAKO KAZETARIA BEHAR DA

ESKAITZEN DA:

- Ordezkapen bat egiteko jardunaldi osoko lan kontratua

ESKATZEN DA:

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Kazetaritza testuak idazteko gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Informatika ezagutza: Quark Xpress.

BALORATUKO DA:

- Elgoibar edo Ingurukoa izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Kazetari lanetan eskarmentua izatea.



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Erakundeak

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
uztailak 15, asteazkena

barren@elgoibarkoizarra.eus
Kalebarren plaza, 2. 20870 ELGOIBAR
943 744 112



BARREN



ARKAITZ IRURETA ARRIETA



“Esango neuke oin lanera bizikletaz guazen zoruak ez garala hain zoruak”

Ni gaur bizikletan etorri naiz lanera, zu zergaittik ez? Dударik gabe, hori izan da nigan eragin haundixena eduki duan zure esaldixa, Ibon. Hurrengo egunian neu ere bizikletaz juan nintzan lanera. Zuk jarritako hondar ale txiki hark jarraipena eduki zuan, eta jende gehixago kontajiatzen jarraitu gendun. Automotibaziorako, kalkulu orri bat egin gendun, eta gutako bakoitzak kotxez egin ordez bizikletaz egiten genittun kilometriak apuntatzen hasi giñan. Kilometruen informazio horrekin eta kotxe batek batazbesteko daukan gasoliña kontsumuarekin, kilometroko aurreztutako CO2 kopurua kalkulatu gendun, eta urte bukaeran, isuri gabeko karbono dioxiduaren pisua pasteletan jaten hasi giñan.

Orain, Txirrinlan deitzen diogu taldiari. Urtian behin afari bat egiten dogu pastelen aitzakixan, eta korreo talde bat ere

badaukagu gai honen inguruko berrixak eta filosofadak elkartrukatzeko. BARRENeK portada bat ere eman zigun behin; akordatzen zara?

Esango neuke oin lanera bizikletaz guazen zoruak ez garala hain zoruak. Ez da zure meritua, ez, ez dizut xaboia emango, inertzia hartzen hasitta zeguan mugimendu bat dala pentsatzen dotelako. Baiña gure inguruan aportazio honek bere garrantzixa eduki duala pentsatzen dot, eta hori errekonozitu nahiko nizuke lehenengo gure *Zozoak Beleari* honetan.

Hirugarrenez nator atal honetara. Batek baiño gehixagok pentsatuko dau: badator berriz txapa hau. Nik aurreko bi aldixetan bezela zera pentsatzen dot: ia lagunaren mailla ematen doten testuetan eta ideiak argi azaltzia lortzen doten. Edozein kasutan, ilusio haundixakin hasi dot berriz ere nere txanda. Ia ez zaittudan aspertzen!



IBON SERRANO LASA

“La veló, bai”; bidaiak, oporrak,... hori dena berreskuratzea ere bada”

Xaboiak ez arduratu, dagoeneko ez dut xanpurik behar; eskerrik asko, Arkaitz. Ia nik ere abentura literario honetan neurria ematen dudana. Nire estilo barrokoarendako onargarria ez den testu luzeeran errenditu beharra dudanez BARRENe, goazen bada harira.

Azken finean, zer da ba lanera txirringaz joateko ekintza? Praktikotasun, ingurumen eta osasun onura ebidenteak alboratu eta sentimenduen arloa nahiko nuke landu... *La byciclette* bai, gizakiaren eta naturaren neurria asmatuiko artelan mekaniko dotua; lanerako tresna bihurtuta, amodio hau egunero apur bat ureztatu besterik ez dugu egiten.

Le veló bai, Anchoragetik Ussuaiara, Leningradetik Pyong Pyongera, Eskiulatik Lanestosara, Elgoibartik hondartzara; bidaiak, oporrak, haurtzarora, gaztarora, xalotasuna; hori dena berreskuratzea ere bada.

Baina, zirrara, kitzika, sentimendu sasipoetiko hauetaz gain, txirringa lan mundura ekartzea bi arlotan eragiten duen iraultzatxo bat ere izan daiteke.

Alde batetik, mailla pertsonalean, konfort eremutik atera gaitzaketen ohiturak aldatuz, zoriontasunaren bidean urratsak eman baititzaiegu.

Eta bestetik, mailla kolektiboan, jarrera estetiko berriak gure eginez, inguruko errealitatea, neurri mikroskopikoan bada ere, eraldatzen dugu. ‘*Entzun lurraren garrasia*’ (Bergoglio dixit).

Alegia, naturaltasunez, inori kalte egin gabe, aurreiritziak baztertuz, oztopoak gaituz (...non hago-zein larretan, Deba-arroko bidegorria?), errealitatea guk ere sortzen dugula jabetzen gara. Honela, eliteek gure garunetan txertatutako gizarte ereduaren ideian arrakala txikiak irekiz, inposatutako egi ofizialak zalantzan jarriz eta gure buruetan sinesmena berreskuratuz.

Beraz, bukatzeko, apaltasun osoz gonbidapen bat, irakurle, iluntzean, behin gertukoei maitasuna adierazirik, igo ganbarara eta *mindfulness*-ez beterik, atera txoko baztertu horretatik horrenbeste une eder eman dizkizun txirringa, oihal busti batez igurtzi, ferekatu, garbitu, koipeztatu, puztu gurrilak; zure bizimoduan aldatetaxo berri bat mamurtzen den bitartean.



Eskema zaharrak eta haize berriak

han eta hemen saldu eta erosituz, mundua txiki utziz. Pendulo bat bailitzan, besteentzen ahaleginak eta garapenak jasatea ere ari gara ezagutzen, hazkunderaren eta lehiakortasunaren gupil ase ezinean.

“Sareak gorpuztean eta elkarlana hauspotzean omen dago funtsa, ezagutzari, berrikuntzari eta ekintzailetasunari bide emateko”

Tartean, makina bat iraultza. Automatizazioak etorkizuneko mundua ekarri digu. Internetek elkarkomunikazioa

birsortu du. Lan harremanak zeharo ari dira aldatzen, antolakuntza jerarkikoak lantalde balioanitzen azkartasunaren aurrean makalduz.

Hiru dimentsiotako inprimaketa buru duten teknologia gehigarriek industria hankaz gora jartzeko gaitasuna daukate. Unitate bat egin edo mila egin, banakako ekoizpen kostea berdina izatea lortu badaiteke... akabo orain arteko hornikuntza kateak, akabo eskala ekonomiak? Akabo tamainaren indarrarekin egituratutako enpresen ekosistema?

Mehatxuen aurrean ez ezik, aukera itzelen aurrean gaudela uste dut. Eta ohiko eskema askoren ordezkatzeko berritasunak, bidaide berri baten konpainian. Sareak gorpuztean eta elkarlana hauspotzean omen dago funtsa, ezagutzari, berrikuntzari eta ekintzailetasunari bide emateko. Horietan guztietan ere ez zaigu eskarmenturik falta.

Aspaldi honetan albiste ekonomikoek bereganatu dute egunerokotasuna. Beheranzko bidea noiz gelditu, berri positiboan egarriz gaude, zikloaren goranzko txandak dena errazago egingo digula sinistuta. Baina ohiko eskemen ondoan, eta haize horien indarra ukatu gabe, ohar-tzen ote gara mundu berri baten erauntzien astindupean gaudela?

Globalizazioaren alderdi txundigarrienak geureganatu genituen lehenbizi, informazioa minutuero irentsiz,



ARGITARATZAILEA:



**Kalebarren plaza, 2 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzaletan ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ullazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
txiki-erdi



BARREnek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ALTZOLATIK, UDALARI EDO DAGOKIONARI!

Orain arte nazkatuta bageunden Altzolan, azkenaldi honetan marra gorria berriro ere gainditu da.

Aspaldi gabiltza arratoiak (eta ez hala moduzkoak) kalean ikusten, eta gainera, gero eta gehiago ari dira agertzen eta edozein ordutan eta edozein tokitan. Zer gertatzen da?. Arratoi pozoian ere aurreztu behar dela?

Hemen, Altzolan, inoiz ez da dragatu Deba ibaia, baina uste dugu gutxienez erreka bazterrak garbitu beharko zirela, arratoiak hain lasai ibili ez daitezen eta hain erraz ugaltu ez daitezen. Zalantza dugu honen ardura-dunak egiten duen benetako jarraipena gai honez.

Zer hasi beharko dugu auzotarren artean dirua biltzen arratoiaren aurkako pozoia erosteko?. Edoeta, lehiaketak antolatzen, ea nor hiltzen dituen arratoi gehiago?. Aski da!

Zertarako ordaintzen ditugu zergak?. Erdigunea ondo apainduta la-

gatzeko bakarrik? Altzolan irtenbidea orain!

ENA: L3798888R

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:


1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitzik argitaratuko.



Javier Cerezo Julian

**Naturak gain hartu dio zure gorputzari,
baina ez ezagutu zintugun guztiongan
utzi duzun oroimenari.
Maite zaitugu.**

2015eko ekainaren 26an hil zen, 52 urterekin. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Alfredo Etxeberria Bidegiko zuzendari izendatu dute

Bidegi, Gipuzkoako autobideak kudeatzeko sozietate publikoko zuzendaria izango da aurrerantzean Alfredo Etxeberria, Elgoibarko alkate ohia. Zortzi urte egin ditu alkate Elgoibarko Udalean, eta orain, Katty Nevadoren lekukoa hartuko du Bidegin. Foru Aldundiak «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia S.A.» Foru Sozietate Publikoa eratu zuen, eta Merkataritza Sozietate Anonimoa da eta bazkide bakarra Gipuzkoako Foru Aldundia du.

Bidegik hiru helburu nagusi ditu:

1. Bilbo-Behobia A-8 autobideko eta Eibar-Gasteiz A-1 autobideko Gipuzkoako zatiak zaintzea eta ustiatzea.
2. Aipatu azpiegiturretan zati berriak, hobekuntzak, zabalkuntzak eta luzapenak proiektatu, eraiki, zaindu, finantzatu eta ustiatzea.
3. Beste autobide eta ahalmen handiko bideak eta horiei lotutako edozein zerbitzu proiektatu, eraiki, finantzatu, zaindu eta ustiatzea, eta, dagokionean, hobekuntzak egitea.



Amaitu dira aurtengo Altzolako eta Idotorbeko jaiak



Altzolako San Joan jaiak eta Idotorbeko San Pedro jaiak amaitu dira. Giro onean joan dira jaiak bi auzoetan, eta ekintza gehienek harrera ona izan dute. Antolatzaileek adin eta gustu guztietarako ekintzak prestatu zituzten aurtengo jaiak ospatzeko.

San Pedroko jaien barruan hainbat lehia eta proba izan ziren, beste hainbat ekitaldiren artean: Jose Mari Zelaia eta Pako Idiakezek osatutako bikoteak irabazi zuen Mus Txapelketa. Zapatuan, Euskadiko Cross Country txapelketako kanporaketa jokatu zuten, eta partaideen artean Aitor Garcia, Jon Criado eta Aitor Osoro elgoibartarrak ere izan ziren. Senior mailan, Iban Ibarrek irabazi zuen proba 30



urtetik gorakoetan; eta, Borja Nietok 30 urtez beherakoetan. 23 urtez azpikoen kategorian Jon Otamendik irabazi zuen eta Egoitz Peñagarikano izan zen azkarrena beterranoen artean. Junior mailan Xabier Aldalur izan zen azkarrena. Giza proban, bestalde, Mendaroko zortzi emakumek eta Berritxuko sei gizonexkok neurtu zituzten indarrak, 500 kiloko harriarekin, eta Mendaroko emakumeak nagusitu ziren. Antolatzaileek janariz eta edariz betetako otarra zozketatu zuten, eta 5366 zenbakiari egokitu zaio lehen saria. 4581 zenbakia da ordezkoa. Bigarren saria, Nekaturreko nekazal etxean egonaldia, 6336 zenbakiaren jabeak irabaziko du. Kasu honetan, 6000 zenbakia da ordezkoa.

Bretainiako Folklores du Monde jaialdira gonbidatu dute Haritz dantza taldea



Datorren uztailearen 6tik 12ra *Folklores du Monde* izeneko folklore jaialdia ospatuko da Bretainian eta antolatzaileek Haritz dantza taldeko kideak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. *Folklores du Monde* Bretainiako Saint Malo herrian egiten da urtero, uztailean. Jatorrian, Bretainiako kulturari erreferentzia egin nahi dion jaialdia da, baina urteekin, mundu osoko dantza eta musikak biltzen dituen jaialdia izatera pasatu da. Mazedonia, Togo, Peru, Irlanda, Galizia, Indonnesia, Lituania, Brasil eta Bretainia bertako taldeak ikusi ahal izango dira besteak beste *Folklores du Monde* jaialdian, Haritz dantza taldearekin batera.

'Gure Balioak' sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabalik dago



Sabin Osoro saritu zuten iaz.

Debegesak antolatutako *Gure Balioak* sariketarako hautagaiak aurkezteko epea uztailearen 24ra arte egongo da zabalik. Edonork izango du bere hautagaiak aurkezteko aukera, herritar, enpresa, elkarte, hezkuntza zein ikerketa zentro edota erakundek. Debabarreneko eskualdean gizarte balioren arloan nabarmendu den pertsona edo erakundeen jarduna aitortzea eta saritzea du helburu *Gure Balioak* Sariak. Informazio gehiago Debegesako 943 820 110 telefonoan.

Hasi dira santana jaietako danborradarako entseguak

Aste honetan hasi dituzte santana jaien barruan, uztailearen 25ean egingo duten nagusien danborradarako entseguak, eta datozen egunetan ere izango dira entsegu saioak. Hasek dira entsegu egunak: uztaileak 6, 8, 13, 15, eta 20. Saio guztiak 21:30ean izango dira, Mendaroko lkastolan.

Mendaroko jaietako gazteen eguneko paella lehiaketarako izena emateko epea hasi da

Uztailearen 18an Gazteen Eguna ospatuko dute Mendaron, eta beste hainbat ekitaldiren artean, koadrilen arteko paella lehiaketa antolatu dute. Interesatuek bost euro ordaindu beharko dituzte, parte hartzeko (arroza, oilaskoa, gatza eta olioia Udalak jarriko ditu). Uztailearen 12ra arte eman daiteke izena, Uztargi, Menditxo edo Aitz Beltz tabernetan. Lehiaketa hila-ren 18an izango da, 13:00etan, eta gero, bazkaria egingo dute.

Landa guneko bideak garbituko ditu Debemenek

Debemen elkarteak Debabarreneko landa gunetakoko bideak garbituko ditu aurten ere. Abendutik maiatzera bitartean, bide bazterrak eta kutxatilik garbitzen dituzte, eta aldiz ekainetik urrira bitartean, bide bazterretako sustriak garbituko dituzte. Abuztuko azken astean jardungo dute Mendaron, eta iraileko bigarren astean egingo dituzte Elgoibarko lanak.

MENDAROCO SEMEA NAIZ DESGRACIA ASCO EGUIN

dedana, eta noa aditceta ematera canta oiequin ez dedin suertatu

Ainaren Semeric gueyago ni becela.

D. M. S.

1. Verso berri batzuec ditot ateraco Mundoco criatoren escarmen teraco, gracia escatcen dizot Jauna artaraco cerron arguicoen zadan motiboa franco, peccadore aundi bat izan naitalaco.

2. José de Larrafaga da nere nombrea Mendaroc jayo nintzan bertaco Semea, Amac eguin dezala beste bat oben: descalabrataua naiz munduan leguea, sin da izugarria nere maldadea.

3. Ay nere Jaungoicoa Aita Eternoa arren lagun zadasu Jaun Soberanoa, bacarric arguicoen zat zore amparos nere confesioa eguitera nos, bestela neretzat dá beico inferna.

4. Estado triste artan Alaba eta Senarra Carolina gassoc ay tra negarra, dirua eracusteco non zan bereala ezabuzen jarri nai beueac bezala, banquicela ongui diruric etzala.

5. Etrechins triste bat escusa eman ta niri argui eguiken gora eraman ta, argatic paratcen det ondeste causa berria orrelacusec ez dedin guerta, ongui esaguturic dela nere falta.

6. Aurrena Aita-alabac azquentan Ama nere escatic zuten erioza bana, ocain acordatcen naiz gaitzqui eguin dedana eracutsi zadasu arren nere Jauna, nola paghuroc dan coelaco lana

7. Amalao eriozza nere bacarrarequin nola paga litezquean albantza jaquin, conformataua nago gure Jaunarequin pagatcen ote diran posca banarequin, beste erremedioric ez dago norequin.

8. Gorputceco icara animico lota corren egula ditudan amalao eriozza, aditu exquerozic diruaren ota bidera irten eta butatceco polsa, ateraco niola bestela biotza.

9. Diruc emanda ere quencea vicia ori eguiken auen gasta izusua, Jaunac bere escatic negoen utcia ocain errezatcen det al dedan gucin, arren aplicatceco beraren gracia.

10. Milla zorcireun eta oqueita bostean amairugarrena zan Urrico Illen, Marquin Echevertico Alcibarrenean atae jo nimen ongui Illinean, bai eta iriqui ere becondate ozann.

11. Oqueita bost utte da nere edadea nagui on barentzat ah cer micabea, ez naiz peccatuen manchazo gabec beti equerteraco nere banidadea, penecan passatceco eternidadea.

12. Santo Cristo zurequin confesa nadjan cer obex eguin nuen nic Camilucian, Lérida pasatu ta urerengo errian bost lagun biei ciran beren familias, guztian li nituen gabaren erdian.

13. Peccatua zala ere ez nuan nic tute bertatican jarroen naiz baracajo esque, calabozo batean bioretic triste nere sententia ere bota emen dute, beia garrotea eman da laurdenduco naute.

14. Sobre da ori neretzat castigo arida munduan pagatcecor lea gaitzqui eguina; Virgini Santisima Ceruco Erregina Anima gassotenzat eguiza aleguina, erremediantceco nere utseguina.

15. Estimatu ninduen Coo de bat bezala sillas eseritican a faldo nezala, Naguala eta bioc ecotien guisila conformatu ciraden familia ala, peccatic sartu non berari putala.

16. Oietic saltatu zan erio igasi nigandic alacoric etroen mercei, Alabac zozensa Aita ala icusi Apalac ecartosta bertatic zan asi, alacora triste bater non burua atal.

17. Ogei eta iru urteco neseccha gastes ezla bada lastima ala tratatceca, aicora triste artax muñac ateratceca ez dago milagroic ni laster galbec, nisa mercei moen bertan urcatceca.

18. En bada munduac deamparatuae ongui adi itzautec nere trabajuac, eguiken bidean daude probatuac onetara bado len ajera contac, munduan onera ere ezguera Santuac.

19. Ah cer errematea munduco gustoc ni becelaco asco badira naituac, cembisi baratcen digu Jaungoico justuac bala ez dira epongo chocoo astuac, guero pagatcen dute anima gassoc.

20. Nere gaitzqueriac acabatu dira bioretic jarcen naiz Jaunari beguira, nic galdu diruac albatcen balira guztic joiteco Ceruco gloria, orra modu tristea bere despedida.

“Lehenengoz ‘Hamalau heriotzena’ entzun genuenean ikaratuta gelditu ginen”

‘Hamalau heriotzena’ bertso sorta ezaguna ikertzen ari dira Modesto eta Bertol Arrieta aita- seme zarauztarrak. Iaz, jatorrizko bertso-paperaren kopia aurkitu zuten, eta ikerlanean jarraitzeko, informazio osagarria izan dezaketen guztiei laguntzeko deia egin diete orain. Jose Larrañaga izeneko Mendaroko semeak Etxebarriko Altzibar baserrian egindako hilketa lazgarri batzuk ditu kontagai bertso sorta horrek, lehen pertsonan. Familia bereko hiru lagun hil zituen Larrañagak 1825eko urriaren 13an: Miguel Galdos eta Katalina Gandiaga senar-emazteak eta haien 23 urteko alaba Joseba Mikaela Galdos. Hiltzailea garrotez hil zuten gero.

- AINARA ARGOITIA -

► MODESTO ARRIETA IRAKASLE ERRETIRATUA ETA BERTSOZALEA

◆ Zerk piztu zizuen ‘Hamalau heriotzena’ bertsoak ikertzeko gogoak?

Xabier Lete, Antton Valverdek eta Julen Lekuonak orain 40 urte atera zuten *Bertso zaharrak* diskoan (Herri Gogoa-Edigsa, 1974) dauka abiapuntua. Disko hura oso ezaguna egin zen, eta haietako bat zen *Hamalau heriotzena* –aurrez Julen Lekuonak kantatu eta grabatutako bertsoak–. Kantu hura lehenengoz entzun genuenean, ikaratuta gelditu ginen. Han kontatzen diren gertaerak hain dira gogorrak, hain dira tragikoak eta hain gordin kontatzen dira... izugarria da. Etxean beti ibili izan gara eztabaidan hiltzaileak berak idatziko ote zituen bertsoak edo bertsolariaren batek idatziko ote zizkion, eta entzuten genituen aldiro, semeak, oso bertsozalea denak, beti esaten zidan zer-bait egin behar genuela bertso haiek. Semea eta biok zientzietakoak gara, baina; ez gara literaturan adituak, alegia, eta gainera, biok lanean egoteak ere zailtzen zigun kontua.

◆ Noiz hasi zineten burubelarri honetan?

Orain hamar bat urte. Erabaki genuen Donostia inguruko artxiboetan hasiko nintzela ni azerka eta berak galdetuko zuela Bilbon. Halako batean, gertatutakoaren sumarioa aurkitu zuen Bertolek Bilbon. Han dena zegoen jasota: zer gertatu zen, nola, non eta nola harrapatu zuten Jose Larrañaga hura, zenbat pertsona hil zituen eta zeintzuk, eta nola hil zuten gero bera garrotez... Eta halaxe konturatu ginen ber-

tsoetan esaten den guztia egia zela. Harrituta gelditu ginen, baina ezin genuen askoz gehiago egin, eta orduko hartan ere, halaxe gelditu zen kontua, harik eta nik erretiroa hartu nuen arte.

Gero, Bertol semeari dokumental bat egitea ere bururatu zitzaion eta nik agindua liburutegietan eta artxiboetan egin beharrekoak egingo nituela, asti gehiago dudalako. Bilaketa sistematiko bat egitekotan gelditu ginen, eta iaz ekin genion lanari.

◆ ‘Hamalau heriotzena’ sorta ezaguna da. Zerk egin ditu horren ezagun?

Bila hasi ginenean jabetu ginen hortaz, beste askok ere kantatu izan zituztela bertsoak: Antton Aranburuk, Oskorrik eta Morauk, eta jakin genuen, era berean, gerra aurreko bertso biltzaile handiek ere [Aita Donostia, Manuel Lekuona, Azkue, Jorge Riezu...] jaso zituztela bertso batzuk herri ezberdinetan. Antologietan ere azaltzen direla ikusi genuen gero, eta horrek erakusten du adituek kalitate bat aitortzen dietela bertsooi. Jakina, Jose Larrañagak egindako hilketa lazgarri haiek ere, lehen pertsonan horren gordin kontatzen diren

“Etxean beti ibili gara eztabaidan hiltzaileak berak idatzi ote zituen bertsoak edo bertsolariaren batek”

horiek ere, ez dira oharkabean pasatze-koak. 1989an, Etxeberria bertakoek antzezlan bat ere estreinatu zuten gai honen inguruan, eta hemen inguruko dozena bat herritan eskaini zuten, arrakasta handiz gainera. Kurioa da: obran hiltzaile papera egin zuenak, Iñigo Larrinagak, benetako hiltzailearen abizen bera du.

◆ Ez al zen ba Larrañaga?

Larrañaga da berez, eta hala ageri da Mendaroko agirietan, baina sumarioan Larrinaga abizenez agertzen da. Gipuzkoako agirietan Larrañaga bezala agertzen da beti, baina Bizkaikoetan, Larrinaga bezala. Ez dakit orduko grafia eraginik edo zerikusirik izango duen, baina zer-bait bada. Suposatzekoa da, baina, antzerkia hemen inguruan ibili zen garaian gai hau pil-pilean ibiliko zela eta izugarri harritzen gaitu inork gehiago ez jakitzea.

◆ Jatorrizko bertso-paperaren bila Chicagoraino ere iritsi zarete. Nola izan da hori?

Guk ezagutzen genuen bertsoia Manuel Lekuonaren bertsoa zen, baina halako batean, Jesus Maria Leizaola lehendakari izandakoaren *1808-1814 en la poesía popular vasca* liburuan bila ari ginela, topatu genuen *Hamalau heriotzena* sorta ezagunaren jatorrizko bertso-paper hori Lucien Bonaparte printzeak jaso zuela, gertaera lazgarri haiek jazo eta 40 bat urtera. Euskaraz idatzitako argitalpen ugari erosi zituen Bonapartek, eta izugarrizko liburutegi pertsonala osatu



Bertol eta Modesto Arrieta.

zuen Londresen. Hura ere zientzietakoa zen gure antzera, baina lan handia egin zuen hemengo dialektok-eta aztertzen. Leizaolak esaten zuen Bonaparte hil zenean, haren alargunak Chicagoko Newberry Libraryri saldu ziola bilduma osoa (1900. urte inguruan). Han dago beraz. Baina guk geure buruari galdetzen dioguna zera da: *Hamalau heriotzeta* sortaren bertsopaper bakarria argitaratu zuten? Guk geuk ez dugu uste. Guk uste dugu gu txienez ehun kopia aterako zituztela garai hartan ere, zabaltzeko izaten zirelako bertsopaperak.

♦ **Eta ez dago? Zer da Euskaltzaindian azkena topatu duzuen?**

Leizaolaren bidez jakin genuen hori ere. Berari irakurri genion Bonaparteren bilduma horren mikrofilm bat lortu zuela. Eta hasi ginen haren bila, baina arrakasta handirik gabe. Donostiako Koldo Mintxelenan egongo dira 1.600-1.700 bat bertsopaper digitalizatuta, baina hori ez. Orduan, Pello Esnalek eta Jabier Kaltzakortak Euskaltzaindian galdetzeko esan zituzten, eta jo genuen hara.

Eta halako batean, iazko udan, hara non bidaltzen didaten bertsopaper haren kopia bat, emailaz. Izugarria izan zen. Bidali ziguten horrek ez zeukan guk ordura arte ezagutzen genuen bertsioak [Manuel

“Bertsolari eskolatu batek idatzi zituela uste dugu, baina garai hartan eskola gabeak ziren denak”

Lekuonarena] zuen izenburua, dotoreago bat baizik, baina paper hartan bertsioak non eta noiz argitaratu ziren ere zehazten zen: Tolosako Juan Manuel La Lamaren moldetegian, 1826an [Gerra aurretik inprenta horretan bertan argitaratu zuen Ixaka Lopezek *Xabiartxo* liburua ere, haur irakurketako entziklopedia txikia]. Guk berehala pentsatu genuen Leizaolaren mikrofilmetik ateratako kopia izango zela hori, baina ezetz esan zidaten, Euskaltzaindiak 80ko hamarkadan zuzenean Chicagora joan eta Bonaparteren bildumari egindako mikrofilm batetik ateratako zela. Kontsultak errazteko, mikrofilm haren kopiak egin zituen Euskaltzaindiak gero paperean, eta zehazki, horien kopia da guri bidali zigutena.

♦ **Eta? Leizaolak berak egin zuen mikrofilmaren arrastorik bai?**

Ba hori gertatu eta hogeita bat egunera, Roberto Kerexetak esan zidan bazegoela

Euskadiko Artxibo Historikoan kaxa bat Leizaolaren izenarekin, eta joateko. Joan ginen, eta hantxe topatu genuen bestea. Horixe da berez orain artean ezagutzen zen idatzizko bertsio zaharrena. Orduko ortografia garaira egokituta eta izenak ezkutatuta eman zituen argitara Leizaolak.

♦ **Aitortu diguzu gaiak berak piztu zuela zuen arreta, baina zer dute berez berezitik? Usatzen ziren halako gaiak garai hartan?**

Bai, geroago gehiago, baina badaude batzuk, Goizuetako Trabukoren historia, adibidez, Patziku Perurenak ikertutakoa eta Mikel Laboak kantatutakoa. *Belateko lapurrak* da beste bat. Han ere lau anaia hil zituzten. Geroagokoen artean, 1900. urte inguruan, hor dago Aian gertutakako *Tejeriaren hilketa* ere. Baina hura bertsolari batek idatzi zuen. Garai hartan ohikoa zen hori, bertsolari profesional bati eskatzea norbere tragedia idazteko. Egia da, hala ere, ezagutzen ditugun garai horretako bertsopaper gehienak gabon kantak direla eta horregatik bada aurkikuntza bat.

♦ **Eta egiletzaren inguruan zer uste duzue zuek? Hiltzaileak berak idatzi zituela ala norbaitek idatzi zizkiola?**

Horixe da ez dakiguna: nork idatzi zituen. Adituei galdetzen diegu eta esa-

ten digute bertso horiek profesional batek idatzi zituela, baina kontraesan bat badaukagu hor. Bateik, bertsolari adituek esaten digute hau idatzi zuenak bertsolari peto-petoa izan behar zuela, oso ondo idatzita daudelako, baina bes-tetik, dialektologian adituek nabarmen-tzen digute hilketak Bizkaian gertatu arren bertsoak gipuzkeraz idatzita dau-dela, Tolosaldeko hizkeran, eta jakin ba-dakigu han bertan argitaratutakoak direla. Orduan zera ondorioztatzen dugu guk: bertsoak idatzi zituen Tolosa inguruko bertsolari bat izan behar zela, baina oso eskolatua, eta jakina, bi gauza horiek ez dira ondo ezkontzen, 1825. urte bueltako bertsolari peto-pe-toak, bat-batean sortzeko gai zirenak, baserriarrak zirelako, eskolatu gabeak. Garai hartako bertsolari eta idazle guz-tiak aztertzen dihardugu, badaudelako hogeita hamarretik gora, baina zaila dago. Eta hor gaude, galduta. Guretzat izugarria izango litzateke norbaitek ko-rapilo hori askatzen lagunduko baligu.

♦ Zer beste duzue zintzilik?

Jatorrizko bertso-paperaren edo kopiarren baten bila ari gara. Inprentan ateratzeko, norbaitek eskuz idatzi zuen aurrena, eta inprentatik ere ez zen kopia bakarra irtengo. Harremanetan gaude inprentako ondorengoan ondorengoekin. Uste dugu kopia batzuk argitaratuko zituztela, eta nonbaiten, baserriren batean-edo, egon behar dela aleren bat. Antonio Zabala izan da gurean bertso biltzaileen biltzailea, baina haren bilduman ere ez dugu topatu —Hauspoa bilduman 300 li-buru baino gehiago argitaratu ditu bertso-larien inguruan eta bere bilduma osoa Koldo Mitxelena dago—. Bazter asko miatu ditugu eta ez da inon ageri. Zaila dela badakigu, jakina. XIX. mendeko bi-garren erdian, Xenpelarren garaian-eta, askoz bertso-paper gehiago argitaratu zituzten, eta hala ere, garai horretakoak to-patzea ere zaila dela esaten digute...

♦ **Pista batzuk bildu dituzue, eta horie-tako batek Elgoibarreraino ekarri zai-tuzte. Kontaiguzu.**

Bertsopaperak baino lehenago

“1962an Basarrik kantatu zituen bertso hauek Arrate Irratian eta grabazio haren atzetik gabiltza”

Gabon kantak idazten hasi ziren. Horiek idazten zituzten artean daude Bizenta eta Juan Jose Mogel neba-arrebak eta Jose Bizente Etxegarai bera, gai erlijiosoez gain, gai politikoak eta jai-girokoak ere idatzi zituen donostiarra. Hain justu ere, Jose Bizente Etxegarai honek bazuen kuaderno bat bere poesia guztiek eta Antonio Zabalak kontatzen du berak inoiz ez zuela lortu hura ikustea. Kuaderno haren bila ere ari gara, han egon daitekezke-lakoan. Izan ere, bat-bateko bertsolaria izan ez arren, bertso asko idazten zituen Etxegaraiak. Hori bai, 1813an erre zen Donostia, eta esaten da ordura arteko denak erre zitzaizkiola. Kuaderno haren bilaketak ekarri gaitu hona.

♦ **Elgoibarren egon daitekeela uste al duzue ba?**

Ez, baina... 1962an Adrian Loiar-te Esnalek zeukan kuaderno hori, Donostiako kronistak. Bera hil zenean, alarguna saiatu zen Donostiako liburutegiari saltzen, baina ez zuen lortu, eta beraz, suposatzen da haien etxean geldituko zela. Lau seme-alaba izan zituen Adrian Loiar-te horrek, eta seme-alabetan gazteena, Lucrecia, El-goibarren hil zen oran hamar bat urte, San Lazaro egoitzan. Egoitzako ardura-dunarekin izan gara hizketan eta hark esan digu Lucreciak aipatzen zuela, bai, euren etxean liburutegi eder bat izan zu-tela, baina etxea saldu egin zutela eta

“Jose Larrañagaren eta haren biktimen ondorengoan bila ari gara, informazioa izan dezaketelakoan”

gehiagorik ez zekiela —Lucreciak berak eta bere hiru neba-arrebek ez zuten ondo-rengorik izan—. Askok galdutzat ematen dute kuaderno, baina gu burugogorak ere bagara eta ari gara bila.

♦ **Etxebarriraino iritsi zarete?**

Bai. Hori da gure beste ikerketa-lerroa. Hiltzailearen beraren, biktimen edo inguruko bizilagunen ondorengoan atzetik gabiltza. Sumarioan esaten da Katalina Gandiaga ez zela momentuan hil eta berak kontatu zuela gertatutakoa medikua-ren eta laguntzera joan zitzaizkion bizila-gun gertukoan aurrean —Aretxulua, Sarasibar, Lejardi... baserrietakoei—. Su-marioan aipatzen da hiltzailea bera ere umetan etxe hartan bititakoa zela eta ho-rregatik hartu zutela hain ondo etxekoek. Beraz, pentsatzen dugu bai hiltzailearen eta baita biktimen ondorengoak ere egongo direla, eta baita lekuko izan ziren inguruko baserriarren ondorengoak ere. Altzibar baserria egon zen lekuan izan gara, eta ibili gara herrian galdezka, baina itxuraz inork ez daki ezer han. Ez da sinesgarria.

♦ **Adar askoko bilaketa da hortaz zuena. Beste zerbait aipatu nahiko zenuke?**

Bai. 1962an Arrate Irratian Basarri bertsolariak kantatu zituela bertso hauek eta grabazio haren atzetik ere bagabiltzala. Arrate Irratiko emanaldi hark hain izan zuen arrakasta handia, Basarri berak idatziz eman zituela gero *Arantzazu* aldizkarian —Manuel Leku-naren bertsoa—. Uste dugu Loiola Irra-tiak eta Segura Irratiak ere batera eman zutela grabazio hori, baina ez dugu inon topatzen. Eta zaila izango da, bai, baina orain 200 urteko bertso-paperera agertu bada Chicagon, zer-gatik ez da ba agertuko orain 50 urteko grabazio bat?

♦ **Ikerketarako baliagarria zaizuen zerbait duenak nola egin behar du zue-kin harremanetan jartzeko?**

Ilatzi diezagula *hamalauherio-tzena@gmail.com* helbidera. Informazio guztia zaigu guri lagungarri eta eskertuko diogu.



1966

Marisol Odrak ekarri du aste honetako erretratu BARREnera. Maalako elizan aterata dago argazkia, lehengo Ama Birjina Mirari Egilearen aldarearen aurrean. Arrate Astigarragaren ezkontza ospatu zuten egun horretan, eta koadrilako argazkia ateratu zuten.

Ezkerretik eskumara: Carmen Romero, Izaskun Uriguen, Mari Tere Laskurain, Maria Jesus Urain, Arrate Astigarraga, Cecilia Urain, Marisol Odría, Begoña Sorazu, Mari Carmen Zubizarreta, Ana Mari Iriondo, Mari Glori Perello. **Koadrilako hiru falta dira argazkian:** Maria Angeles Iriondo, Itziar Beristain eta Edurne Lasa.



Jose Emilio Martinez Criado

"Musa"

2015ko ekainaren 27an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



BARRENen 954. alean argitaratu zen kexa bati Mendaroko Udalak emandako erantzuna: "Ur-

tarrilean gertatu zen lurjausia Azpilgoeta kale barranean, eta harri gehiago erortzeko arriskuagatik, berehala, hesiekin inguratu eta seinalezatu genuen, horretarako espaloia eta ondoko erreia itxiz. Era berean, berehala jarri ginen Gipuzkoako Foru Aldundikoekin harremanetan, beraien eskuduntza delako hori. Zenbait gestioeren ondoren, apirilean, Mendaron, N634 errepidean, Azpilgoeta kalearen hasierako zatian, lur erauzketako ezpanda egonkortzea izeneko proiektua aurkeztu zuen Foru Aldundiak. Han, hartu beharreko neurriak zehazten dira: kareharrizko puskak erortzea saihesteko babeserako sare bat jarriko dute, 1.900 metro koadroko azalera izango duena, eta baita sei metrotako buloia ere, sor daitezkeen tentsioak lurrera transmititzeko.

Kontratuaren lizitazio tramiteak egin ondoren, ekaina hasieran, lan hauek Geotunel enpresari esleitu zaizkiola jakinarazi du Foru Aldundiak. Aurrekontua 114.608 eurokoa da. Uztailaren lehen edo bigarren astean hasteko asmoa dute, eta bi hilabeteen bukatzea aurreikusten dute. Segurutasuna bermatzeko, obrak irauten duen bitartean Azpilgoetatik 634 errepidera doan erreia itxia mantenduko dute, eta Arranbide kaletik irten beharko da errepide nagusira. Biribilgunetik Azpilgoetarako erreia, berriz, zabalik egongo da. Eragozpenak ulertuko dituzuelakoan, alde zuzenetik eskerririk asko zuten pazientziagatik".



Urazanditik errepide nagusira irteteko lekuan zulo handi bat dago, eta oso dago arrisku-

tsua.: "Zer esanik ez Pilarreko aparkalekutik errepide nagusira irten nahi dutenentzat, zuloa bete-bete harrapatzen dutelako. Berez ere arriskutsua dute Pilarreko aparkalekutik irteten direnek errepide nagusira irtetea, eta zulo hori hor egoiteak are gehiago zailtzen die irteera".



Zaborrontzi batzuk oso egoera txarrean daude Mendaron: "Herriko zaborrontzi asko oso

egoera txarrean daudela salatu nahi dugu. Zaborrontzietako askori beheko tapa falta zaie, eta jakina, hondakin guztiak lurrrera jausten dira. Eskertuko genuke Udalak kontuan hartuko balu gure kexa"

“Oso polita da Nahaste Borraste proba, baina oso gogorra”

▶ ANTONIO FERNANDEZ KORRIKALARIA



11 urte zituela etorri zen Antonio Fernandez Extremaduratik Euskal Herrira. Soraluzera iritsi zen, eta ezkondu zenean etorri zen Elgoibarrera. 33 urte zituela hartu zuen parte estreinakoz Soraluzeko herri lasterketan, eta ordutik ez dio korrika egiteari laga. 70 urte ditu, eta aurtan ere ez du hutsik egin Nahaste Borraste proban. Azkenekoz egin zuela esan zuen, eta antolatzaileek oroigarri bat eman zioten hainbeste urtetan hutsik egin gabe parte hartzeagatik. Korrika egiten segituko du, horrek ematen diolako “bizia”.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Joan zen astekoa zure azken Nahaste Borraste izan zela adierazi duzu. Ez dago atzera bueltarik?

Ez, hauxe izan da azkena. Iaz ere egon nintzen lagatzekotan, baina aurtengoa izan da azkena. Bizikletan ez naiz ondo moldatzen, eta Nahaste Borraste proban bizikleta klabea da. Ni ez naiz bizikletan ibiltzen. Nahaste Borraste prestatzeko Bergarara joan nintzen behin bizikletan, eta hirutan egin nuen lasterketako ibilbidea, baina besterik ez. Gainera, nire bizikleta oso astuna da, eta horrekin ez daukat ezer egiterik. Askotan gurpilari begiratu behar izaten diot platoa ondo sartu den edo ez ikusteko ere, eta Melitongo errotondara iristerako, beste asko Albitxurin gora egoten dira! Kolpe handia hartu nuen behin Albitxuritik behera, eta beldurra diot bizikletari. Behin baino gehiagotan bizikleta eskuan hartuta igo izan dut Karkizanoko aldapa! Korrika eta zakuarekin ondo moldatzen naiz, eta proba horiek bakarrik balira ez nintzateke azkena izango!

◆ Nahaste Borraste proba berezia da elgoibartarrentzat. Zuri ere hala iruditzen zaizu?

Bai, berezia da. Pare bat aldiz huts egingo nuen, baina bestela edizio guztietan hartu izan dut parte. Kalegoen plaza ikuslezt beteta egoten da, denak animoak ematen, eta oso giro polita egoten da herrian, baina aldi berean, gogorra da. Bizikletan ibiltzeko eta korrika egiteko muskuluak desberdinak dira, eta aldaketa hori oso gogorra egiten da. Proba laburra baina intentsitate handikoa da. Bizikleta utzi, zakua hartu eta gero korrika hastea gogorra da. Maalara iritsi arte arnasa kontrolatu ezinda joaten naiz, eta azken zatia egiten dut gusturen.

◆ 70 urte dituzu. Noiz hasi zinen korrika egiten?

Soraluzen bizi nintzenean, herri lasterketa bat antolatuta zuten, eta parte hartzea erabaki nuen. Azkena ez izatea zen nire helburua, eta lortu nuen. Gero, Eibarko lasterketa batean ere eman nuen izena, eta horrela, gaur arte. Lasterketa askotan parte hartu izan dut: Behobia-Donostian 1:18 denbora egin nuen 91n, 46 urterekin. 1:15ean egin nahi nuen, baina hiru minutu gehiago behar izan nituen. Urte berean Donostiako maratoia egin nuen, 3:11n, ia entrenatu gabe. Orain ez dakit maratoia egiteko gai izango nintzatekeen. Baietz uste dut, nire erritmoan eginez, amaituko nuke. Kilometroa zazpi edo zortzi minutuan eginez, distantzia luzeak egiteko gai izango nintzateke oraindik. Mugertza Krosean ere parte hartu izan dut, eta Karakateko lgoeran ere bai. Polita da Karakatekoa, baina oso gogorra. Proba hori egiteko asko entrenatu behar da, eta ni mendian ez nintzen entrenatzen. Lauan hobeto moldatzen naiz. Herri lasterketa pila batean parte hartu izan dut, eta beteranoen mailan sartu nintzenetik sari asko eskuratu ditut. Etxeko ganbara garaiakuruz beteta daukat!

◆ Estreinako lasterketa hartan parte hartu zenuenean, pentsatzen al zenuen 70 urterekin korrika segituko zenuela?

Helburu handiegirik gabe hasi nin-

“Hankek erantzuten didaten bitartean korrika egiten jarraituko dut, horrek ematen dit bizia”

tzen, baina gustura dihardut korrika. Mediku bati entzun nion behin gauza bat hamasei aldiz eginez gero, engantxatu egiten zaituela, eta nire kasuan, bete da. Sigman lan egiten nuenean, lanetik irten eta Berdun aldera joaten nintzen korrika egitera, eta handik Danobatera, edo Mintxeta egin aurretik ere han ibiltzen nintzen. Orain ere, egunero ordubete inguru korrika egiten ahalegintzen naiz. Industriguneetara, edo Maltzagako bidegorrira joaten naiz. Nahi izanez gero, korrika egiteko lekuak badaude. Berdin zait euria egiten duen edo ez, bustitzea ez da arazo. Gero kamiseta aldatu, eta kitto. Gaur egun jende asko dabil korrika, neska zein gizon, eta beti egiten dut topo norbaitekin. Berriketean gustura joaten gara.

◆ Lesioek ere errespetatu zaituzte, ezta?

Bai, bizikletan hartu nuen kolpe hura izan da txarrena. Nahaste Borraste proban izan zen, Albitxuritik behera. Zulo bat zegoen bidean, eta hantxe sartu nuen gorpila. Besoan arrastada bat neukan, eta segitzeko moduan nengoela uste nuen, baina bekainetik odola irteten zitzaidala ikusi nuenean, konortea galdu nuen. Esnatu nintzenean Mendaron nengoen, ospitalean. Oso ondo esnatu nintzen, gertatutako guztia gogoratzen nuen, eta etxera joan behar nuela esaten nion medikuari, afaritarako geratuta nengoela-eta. Mendarotik etxera bost kilometro neuzkan, eta ordu erdian korrika erraz iritsiko nintzen. Buruan kolpea


hartu nuenez, memoriaz ondo nengoela egiaztatzeko hainbat galdera egin zizkidaten, eta ondo erantzun nuen, baina komunera joan eta txiza egitean odola irteten zitzaidala ikusi nuenean, benetan kezkatu nintzen. Ordura arte ausardia zen guztia beldur bilakatu zen. Medikuek esan zidan ingresatu egin behar nuela, giltzurrun bakarria edukita, ondo sendatu behar nuela. Hura sustua hartu nuena! ‘Giltzurrun bakarria? Eta bestea?’ Galdetu nion medikuari. Ordura arte ez nekien ezer. Soldaduska egiteko pasatu nuen mediku proba, eta Sigman ere egiten zizkiguten mediku-azterketak, baina antza denez, sekula ez zidaten hori begiratu. Kolpearen ondorioz, hiru puntutan giltzurruna puskatuta zegoen, eta sendatu ezean, kendu egin beharko zidatela esan zidaten. Mundua behera etorri zitzaidan. 22 egun egin nituen ospitalean, eta gerora jakin nuen nahiko larri egon nintzela. Zorionez, ondo osatu nintzen, eta ordutik bizitza normala egiten dut.

◆ Noiz arte jarraituko duzu korrika?

Hankek erantzuten didaten bitartean korrika egiten jarraituko dut. Jose Gurrutxaga bezala izan nahi nuke! Hura ere sarri ikusten dut txandala jantzi eta bidegorrian pasiatzen. Korrika egiteak ematen dit niri bizia, eta horri esker, oso ondo sentitzen naiz. Bi edo hiru egun korrika egin gabe egoten baina, gaizki egoten naiz, beharra daukat. Medikuari bisita gutxi egiten dizkiot! Urtean behin azterketaren bat egitera joan beharko nuke, baina azkenekoz joan nintzenetik pasatuko ziren hiru bat urte! Abuztuan Extremadurara joango naiz oporretan, nire jaioterrira, eta han egiten den herri-lasterketan hartuko dut parte. Herriko festak izaten dira, eta behin baino gehiagotan gaupasa eginda hartu izan dut parte. Jan-edana ere asko gustatzen zait, eta asteburuetan horixe egiten dut. Bi-hiru kilo hartzen ditut asteburuetan, baina astean zehar zaindu egiten naiz.

► Iñigo Larizek 11 segundoan ondu du bere errekorra Nahaste Borraste proban

2012an ezarri zuten errekorra Iñigo Larizek Nahaste Borraste proban, eta aurten 11 segungo gutxiago behar izan ditu proba amaitzeko: 17:50ean ezarri du errekor berria. Ion Garatek egin zuen bigarren 18:16ko denboraekin; eta, Asier Murua izan zen hirugarrena (18:38). 57 lagunek hartu zuten parte Kimetz elkarteak antolatutako proban, tartean hiru emakumek. Horien artean Ainhoa Lendinez izan zen azkarrena, beste behin ere, 20:33ko denborarekin. Lendinezarren ahizpa gazte-ena, Nerea, helmugaratu zen bigarren postuan eta Sonia Polo ailegatu zen hirugarren. Argazki guztiak eta sailkapena ikusteko: www.barren.eus



Maite Maiorak hirugarren egin du kilometro bertikalen Europako txapelketan



Nazioarteko Mendi Lasterketen Federazioak (ISF) antolatuta, kilometro bertikalen Europako Txapelketa jokatu zuten barixakuan Chamonixen (Frantziako Alpeak), eta Maite Maiora mendarorak hirugarren egin zuen, 43:30 denborarekin. Kilometro bertikalen Espainiako txapelduna den Paula Cabrerizo madrildar gazteak irabazi zuen proba, 41:11ko denborarekin. Kilometro bertikalen egungo munduko txapeldunari, Laura Orgue kataluniarrari, 18 segundoko aldea atera zion Cabrerizok.

Gipuzkoako giza proba txapelketako lider jarri da Mendaroko taldea



Gipuzkoako giza proba txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten domekan Errezilgo Gernika plazan. Deba, Itziar, Berrobi eta Mendaroko taldeek hartu zuten parte, eta hogeitun minutuan aritu ziren lanean 950 kiloko harriarekin. Itziar Andutz taldeak irabazi zuen proba eta Mendaroko TopeNatiok taldeak lortu zuen bigarren postua. Emaizta honi esker, ligaxka eran jokatzen diharduten txapelketako lidergoa eskuratu du Mendaroko taldeak. Finala uztailearen 18an jokatuko da, Elgoibarren.

Tenis eta padel txapelketako finalak, bihar

40-15 tenis elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketak iritsi dira amaierara, eta bihar jokatuko dituzte finalak. Aurten, tenis erakustaldia ere antolatu dute, eta goiz guztirako egitaraua prestatu dute arduradunek. 10:00etan hasiko dira ekitaldiak emakumezkoen padel finalarekin, eta segidan, tenis finala jokatuko dute. 11:15ean gizonzkoen padel finala izango da. Segidan, sariak banatuko dituzte, eta horren ostean, tenis jokalarri profesionalen erakustaldia izango da. Ivan Rodrigo (Pete Sampras tenislari ezagunaren ikasle izandakoa), Arkaitz Mazarbeitia eta Jony Taborcia izango dira gonbidatutako tenislariak.

Naturhouse taldeak Imanol Garcandia fitxatu du



Azken bi denboraldiak Sanloko Alcorta Forging Group taldean jokatu dituen Imanol Garcandia Alustiza (Zumarraga, 1995) eskubaloia jokalaria fitxatu du Asobal Ligan diharduen Errioxako Naturhouse La Rioja taldeak. 2,01 metro, 101 kilo eta 20 urte ditu Imanol Garcandia eta ezker hegalean jokatzen du.

Sanloren urteko batzarra, gaur, 19:00etan

Bazkideen batzar nagusia egingo du Sanlok gaur, 19:00etan, Kultur Etxeko so-tuan. Kirol eta ekonomia alorreko balorazioak egingo dituzte, eta datorren denboraldirako helburuen berri emango dute. Bazkide kuotaren zenbatekoa ere zehaztuko dute.

LANA.....**Eskaerak**

Emakumea eskaintzen da lanerako, interna edo orduka. Sukalde laguntzaile lanetan, biltegiko lanetan, garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia. ☎ 673 955 298

Neska eskaintzen da lanerako, interna edo orduka. Sukalde laguntzaile lanetan, biltegiko lanetan, garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia. ☎ 632 510 102

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna moduan ere bai. ☎ 632 882 532

42 urteko emakumea naiz eta lan egin nahi nuke. Nagusiak zaintzen lan egin izan dut eta erreferentzia onak dauzkat. Umeekin ere oso ondo moldatzen naiz. Interna moduan lan egiteko ere prest. ☎ 642 636 525

Emakume arduratsua eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo taberna eta etxeetan garbiketa lanak egiteko. ☎ 620 258 708

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditu. ☎ 603 743 240

Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta adinekoak zaintzeko. Abuztuan ere lan egiteko prest. ☎ 638 338 816

Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 633 236 528

Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 632 454 417

Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 631 705 406

Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, 09:00etatik 16:00ak bitartean. ☎ 680 808 125

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ 631 832 767

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ 667 897 002

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Neska eskaintzen da sukaldari lanerako, nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ 633 357 538

Emakumea nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, orduka. ☎ 653 156 403

Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Orduka. ☎ 616 457 254

Neska euskalduna eskaintzen da portalak garbitzeko. ☎ 617 571 210

Emakumea eskaintzen da, interna, etxeko lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko. ☎ 606 641 609

Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako. ☎ 626 914 904

Mutila sukaldari laguntzaile (elikagaiak manipulatzeko tituluarekin) edo zerbitzari lanerako prest. Behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest (tikasketak egiten). ☎ 661 064 027

Neska eskaintzen da orduka, interna edo externa, umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ 635 189 294

Neska eskaintzen da garbiketa lanerako edo nagusiak zaintzeko. Ordezkapenak egiteko prest. ☎ 638 338 816

Neska eskaintzen da tabernan lan egiteko. ☎ 634 209 087

Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanerako. Arduratsua eta esperientziarekin. ☎ 620 258 708

Eskaintzak

Jaietan Elgoibarko Taberna batean lan egiteko zerbitzaria behar da. Esperientzaduna. Bidali CV: *kamareroajaiak@outlook.es* helbidera.

Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzaile behar dira. Esperientzia. CV bidali Gautxo tabernara.

ETXEBIZITZAK.....**Salgai**

Pisua salgai San Bartolome kalean, (7 zenbakia, 2. pisua). Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelegua. Egoera eta prezio onean. ☎ 665 716 443

Babes ofizialeko bi logelako pisua, hiru logelakoarengatik aldatuko nuke. Gabriel Krutzelaegi kalean dago etxea. ☎ 628 115 677

BESTELAKOAK.....

Martxan dagoen liburudendaren arduraz hartzeko prest dagoen pertsona baten bila gabilta. ☎ 696 394 717 / 677 744 273

Lerun industrigunean, Netto BM hipermerkatuan dagoen Rosa liburudendan loteria saltzeko lizentzia eskualdatzen da, gaixotasunagatik. Harremanerako: *rosadaquinta22@hotmail.com* ☎ 680 321 479

Sofa salgai. Ia berria. Tela iragazgaitza. ☎ 628 115 677

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Bizi garen eraikinean, lehenengo solairuko bizilagunak erabilera pribatuko terraza bat dauka. Azkeneko batzarrean jakinarazi zigan terraza zati bat itxeko asmaoa duela, etxea handitzeko. Bileran ez genuen ezer erabaki, baina aurreikusita duena egingo balu, kalte egingo lioke komunitateari eta bereziki niri, bigarren solairuko bizilaguna naizelako eta obra hori egingo balu kanpotik nire etxera erraz sartzea legokeelako. Hurrengo batzarrean berriz aztertuko dugu gai hau zerbait erabakitzeko, baina zalantza daukat komunitateak obra hori egitea baimendu dezakeen.

Terraza elementu amankomuna da, eta beraz, lehenengo solairuko etxe jabe horrek erabiltzea badu, baina ez espazio hori bere nahierara moldatzea, ezta obra horiek gainerakoei inolako kalte egiten ez dieten kasuan ere.

Bizilagun horrek egin nahi duenak eraikineko elementu amankomunak aldatzea suposatzen du, eta horrenbestez, bizilagun guztien onspena behar du. Obra horren kontra zeu bakarrik agertuko bazina ere, ezingo luke egin.

AHOLKUA: Komunitateko dokumentazio guztia aztertu beharko zenuke, gerta daitekeelako salbuespen kasu batzuk jasota egotea.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira
BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Uztailaren hirua / aizu, **Nahia**, zure eguna! / Gaur opariak zuratzat dira / zarelako gure kuttuna.




Zorionak, **Iker**, hilaren 9an 8 urte beteko dituzulako. Etxekoan partez, bereziki Miren eta Aneren partez.



Zorionak, **Nora**, asteartean urtebete egin zenuelako. Etxekoan partez.



Zorionak **Lara**, etxeko sorginari lehen urtebetetzean, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Nora**, zure lehenengo urtebetetzean! Muxu handi bat Eliaren partez!. Muaaa!!



Zorionak, **Ane**, 10 urte egin dituzulako! Zu zara gure opari onena... Muxu handi bat zure familiakoan partez.



Zorionak, **Nora**, zure zortzigarren urtebetetze egunean! Patxo handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Maddi**, 7 urte beteko dituzulako larunbatean. Muxu handi bat, Ane, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi zaigula egun handia! Bihar zuen eguna ospatzeko irrikitan gaude! Ondo-ondo pasatzeko dugu horrenbeste itxaron dugun egunean! Muxu bana!



Zorionak, **Mikel** eta **Jon**, igandean eta asteartean 3 eta 6 urte beteko dituzuelako, hurrenez hurren. Muxu bana, familiakoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL: 943 744 457
ELGOIBAR

www.colchonerialagunak.com



colchoneria

terxy



Oihana
Oso genetikak



KEYTON
Masajadori Desaxiak



MIRIN

Lagunak-en, beherapen handienak kalitate onenean
%25eko deskontuak gure ehunetan
Gainera, zure erosketak finantzatzen ditugu,
interesik gabe eta hiru urtera arte

3 BARIKAKUA

19:00 Sanloren urteko batzarrak. Kultur Etxeko sotoan.

21:30 Bideo forum-a. Haizeak antolatuta, *Si fuera fácil* filma eskainiko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

4 ZAPATUA

10:00 Tenis eta padel txapelketako finalak. 40-15 tenis elkarteak antolatuta, Mintxetan.

11:00 Eskolarteko xake txapelketa. Maalako parkean.

16:30 Euskadiko zirkuituko taldeen Elgoibarko txapelketa. Maalako parkean.

16:00 Javier Ezenarro zenaren omenezko lasterketa. Mendaroko Herriko Enparantzan hasiko da. Jubenilen lasterketa da, eta partaideek 80 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

17:00 Elgoibar Dance Festival jaialdia. Kida Events elkarteak antolatuta, Albitzuri industrigunean.

7 MARTITZENA

8:00 Sanferminetako entzierroak zuzenean. Hilaren 14ra arte goizeko eskainiko dituzte Iruñeko sanferminetako entzierroak Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

10 BARIKAKUA


10:30 San Fermin Txiki. Atxutxia maikak antolatuta, San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar.

22:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria. Azkaraten.

Nabarmendua

DJ saioa

Kida Events elkarteak Elgoibar Dance Festival jaialdia antolatatu du bigarren urtez. Khri Rios eta David MK elgoibartarrek osatzen dute Kida Events. Biek musika elektronikoa dute gustuko, eta orain dela hamabost urte hasi ziren mundu horretan bidea egiten. Musika elektronikoaren kultura Elgoibarren zabaldu nahi dute, eta asmo horrekin antolatu dute EDF jaialdia. Aurten Euskal Herriko eta nazioarteko DJ onenekin osatu dute kartela. Bihar izango da jaialdia, 17:00etatik aurrera, Albitzuriko industrigunean.



**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
AGURRAK
KINTADAK** **KARAOKE** arekin

ORDUTEGIA
7:30etik 22:00etara
Astelehen arratsaldean itxia
Igandoetan erretserba oginez gero zabaik.

Sigma
jatetxea

**Tel.: 943 748 531
675 708 160**
sigma.jatetxea@gmail.com

"Berezitasuna EGUR-IKATZETAN"

Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)

'Ocho apellidos vascos'

3, barixakua, 22:30

Zuz.: Emilio Martinez-Lazaro. Espainia, 2014. Iraupena: 98 min. Generoa: komedia. Aktoreak: Clara Lago, Dani Rovira, Carmen Machi, Karra Elejalde.

Rafa, andaluziar peto-petoa da, eta bizitzan behar duen gutzia bere herrialdean aurkitu izan duena beti: ardoa, gomina eta emakumeak. Baina bat-batean, emakumezko batek kalabazak emango dizkio: Amaia euskaldunak. Rafa ez dago hori onartzeko prest, eta Euskal Herrira bidaiatuko du, Amaiaren maitasuna bereganatzeko.

'Rio2'

4, zapatua, 22:30

Zuz.: Carlos Saldanha. AEB eta Brasil, 2014. Iraupena: 101 min.

Blu, Perla eta euren hiru seme-alabek bizitza perfektua daukate. Perlak erabakitzen du seme-alabek benetako hegazti bezala bizitzen ikasi behar dutela, eta horretarako, Amazoniara egingo dute bidai. Blu kezakakuta dago, ohianean aurkituko dutenarekin.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

3 Barixakua ORUESAGASTI
4 Zapatua GARITAONANDIA
5 Domeka GARITAONANDIA
6 Astelehena IBAÑEZ
7 Martitzena GARITAONANDIA
8 Eguaztena ETXEBERRIA
9 Eguena ORUESAGASTI
10 Barixakua ETXEBERRIA

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza
4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626	Udal euskaltegia.....	943 742 731
Udalzaingoa.....	943 741 394	AEK euskaltegia.....	607 601 423
Udalaren arreta bulegoa.....	943 741 050	KZgunea.....	943 023 640
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700	Jubilatuen biltokia.....	943 740 526
Bake epaitegia.....	943 741 630	San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008	Eguneko zentroa.....	943 744 565
Hirigintza.....	943 744 384	Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Mankomunitatea.....	943 700 799	Taxi geltokia.....	943 740 898
Debemen.....	943 744 067	Larrialdiak.....	112
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414	Gurutze gorria.....	943 743 864
Berdintasun saila.....	943 741 050	Eusko tren.....	902 543 210
Euskara saila.....	943 744 366	Pesa.....	902 101 210
Kultura saila.....	943 742 158	Correos - Posta.....	943 741 547
Udal liburutegia.....	943 743 525		
Gazteria saila.....	943 531 319	Mendaroko Udala.....	943 033 282
Gazte informazio gunea.....	943 257 986	Liburutegia.....	943 033 291
Ludoteka.....	943 748 883	Bake Epaitegia.....	943 033 289
Ludotekua.....	943 743 228	Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Enplegua/Merkataritza.....	943 741 050	Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Emugi.....	943 747 371	Haurzaindegia.....	943 755 219
Kiroldegia.....	943 744 415	Musika Eskola.....	943 244 275
Mintxeta.....	943 747 356	Taxi.....	607 57 57 28
Musika eskola.....	943 742 145	Ospitalea.....	943 032 800



Gaztelekua

Uztailaren 8an
Gamarrako
igerilekuetara
egingo dugu
irteera.



Ludoteka

Uztailaren 8ko
Mintxetarako irteerarako
izenematea zabalik:
Azken eguna
uztailaren 7a.



Manu Sanchez

Unai Villena



ratzargailuaren alarma torturatzaileak goizeko seieta jotzen zuen astelehenero, eta miramendurik gabe erbesteratzen ninduen ametsen erresumatik, bultzaka eta ostikoka. Alta, niri eskainitako biolentzia hura

guztia bueltan joaten zitzaion eskuin eskuaz emandako danbategoan, eta infernuko txirrina isildu ostean, ohe barrura sartzen nuen, bost minutu beranduago joko zuen alarma errepikakorraren zarata izara artean ito zedin, eta nire eskuak berehala zanpa zezan hura itzaltzeko botoia. Horrela, lauzpabost aldiz errepikatzen zen gauza bera, 6:30 inguruan buru barruan daukadan eta kontzientzia esaten dioten ahots karioiak behingoz jaikitzen derrigortu arte: "Alfer puta hori, uni-bersitate zain daukazu Bilbon, irten ohetik!". Haren esanek

batbateko eragina izaten zuten nigan; halakoa zen, nagiak atera eta erlojuari begiratu ere egin gabe, korrika egiten bainituen egin beharreko guztiak (pixa, arropa jantzi, motxila hartu, etxetik irten). Eta korrika egiten nuen, baita ere, Erretxinditik autobus-geltokirainoko distantzia luzea, lasterkari olinpikoa banintz bezala, denborarekin lehia itsuan. Lasterketaren bukeran, Plaza Handia gurutzatu eta Txankakoa zubitik geltokia ikus nezakeenean, askotan nire autobusa bertan izaten zen abiatzeko prest, eta larrituta egiten nuen bidearen azken zatia, lurpeko pasabidea hartu ordez, zubitik aurrera jarraitu eta 634 errepidea gurutzatuz. Eguneko gainerako edozein ordutan erabat suizida izan zitekeen esprintarekin ematen nion amaiera bost minutu atzerago etxetik irtendakoan hasitako lasterketari. Ikasle nintzen garaiko astelehen goizetan, Txankakoa zubia atletismo-pista bat zen niretzat.

"Txankakoa zubia atletismo-pista bat zen niretzat"

GAZTELEKUA

#LOKALAKMARTXAN

- Uztailean egingo dugun lokalen arteko lehiaketan parte hartu nahi?
- Lokala duzuen gazte koadrilentzako bilera deia.
- Uztailaren 6an, 11:30ean, Kultur Etxean elkartuko gara lehiaketa zuekin batera antolatzeko.
- Animatu eta etorri! Ez zarete damutuko!
- Proposamenak egiteko beste bide batzuk:

Tel.: 943 743 228 / 628 170 330

gaztelekua@elgoibar.org

@GZTLKelgoibar (#LOKALAKMARTXAN)



Badatoz santanak eta sanbartolomeak!



Barrenen publizitatea jartzeko:
943 744 112 edo barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

15:30etik aurrera, jendea etorri ahala hasiko gara bazkaria ematen
Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Entsaladilla errusiarra
- Masailak saltsan
- Izozkia
- Kafea eta txupittoa (edariak: ura, sagardoa eta ardoa)

15€

Elgoibarko
Izarrako
bazkideek

17€

Bazkide ez
direnek

Trago luzeak: 3,50€

Zoro-zozketa

Spotykaraokea



Izenematea eta txartelak salgai **Elgoibarko Izarran** eta **BARRENen**.
Txartelak online erosteko aukera, www.elgoibarkoizarra.eus-en.
Azken eguna: uztailak 27

